

LEGAZPI / Malaspulgas antzerki talde nafarrak 'Cyrano' antzeztuko du

Udal liburutegiak nazioarteko liburuaren egunaren inguruan antolatutako ekitaldia da; etzi izango da, Latxartegin.

Miriam Luki

Etzi, larunbata, arratsaldeko bostetan Malaspulgas antzerki talde nafarrak Cyrano lana aurkeztuko du Legazpiko Latxartegi aretoan, Udal Liburutegiak antolatuta. Sarrerak hiru euroan salduko dituzte antzerkia hasi aurretik. Bost urtetik gorako haurrei zuzendutako antzerkia da Cyrano, eta ezpatarekin trebeegia ez den ezpatari sudurluzearen istorioa kontatzen du. Edmond Rostand-ek 1897. urtean idatzitako komedia poetikoa du oinarri, eta XVIII. mendeko Parisera eramango ditu haurrak.

Malaspulgas taldeak taularatzen dituen lanen helburua haurrei ipuin klasikoak gerturatzea da. Bide batez, ahozko tradizioa gogora ekarri nahi dute, eta ipuin klasikoaren irakurketa umeen artean sustatu. Malaspulgas taldekoek, haurrak dibertitzeaz gain, zeredozer ikas dezaten bilatzen dute.

Udal Liburutegiak sustatuta

Etziko antzerki saioa Udal Liburutegiak apirilaren 2ko Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitarauaren barruan dago kokatuta.

Aurreko astelehenean Miren Agur Meabe poetak DBHko ikasleekin solasaldia izan zuen, eta baita Edorta Jimenezek ere.

Zientziarekin jolastera

Datorren apirilaren 23an tailer zientifikoa egingo dute Legazpiko Udal Liburutegian bertan. 8 urtetik 12rako umei zuzendutako tailerrean zientziari buruzko materialak ezagutaraziko dizkiete.